euskalmendizalefederazioa
FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

Mendi eta Eskalada
Kirolen Napar Federakundea
Federación Navarra de
Deportes de Montaña y Escalada

KARPOS

BANDRES – KAROLO MEMORIALA
MENDIKO ESKIKO EUSKADIKO TXAPELKETA - BANAKAKOA
MENDIKO ESKIKO EUSKADIKO TXAPELKETA – ERLOJUPEKOA
MENDIKO ESKIKO EUSKADIKO KOPA

DATA: 2014ko otsailaren 22a eta 23a

LEKUA: Belagua eta Linza haranak.

PROBA HONEN NONDIK NORAKOAK:

- 2011ko udazkenean utzi gintuen betiko Antxon Bandresek, eta, berehala, gizon hura ezagutu eta haren ekimenetan parte hartu genuen guztiok gogoz ekin genion lanari, haren oroimenez kirol-proba bat antolatu asmoz, asko zor baikenion; askotan esan izan dugu proiektu hura aurrera ateratzeko ekinean lehena Karolo izan zela: haren bizitasunak eta gogoberotasunak ekarri gintuen guztiok egitasmo honetara, eta handik sortu zen "Antxon Bandres Memorialaren 1. Edizioa". Mendiko eskiko erlojupeko proba baten bidez gauzatu zen, San Martingo Harria eski-estazioaren laguntzarekin. Lehen edizio hark arrakasta handia izan zuen, eta mendizale eta eskiatzaile asko bildu zituen hitzorduak.

- Zer-nolako emaitzak lortu ziren ikusita, lantaldeak proiektu hari jarraipena emango ziola agindu zuen, eta, 2013. urtean, are indar handiagorekin etorri zen bigarren edizioa, eta bi saiotan gauzatu zen: mendiko eskiko lasterketa egin zen lehen egunean, eta bigarrenean, berriz, erlojupeko proba; bi probak, gainera, baliozkoak izango ziren Euskal Herriko txapelketetarako. Zer esango dugu egindako lan guztiaz, sustatzaile nekaezin eta kartsu haiek guztia aldeko izan zutela jakinda; eta erantsi horri guztiari baldintza meteorologiko onak, elur kopuru egokia, Izabako herriaren babesa edota parte-hartze sendoa... Bigarren edizio hark argi erakutsi zigun memoriala sendotzen ari zela eta Pirinioetako proba garrantzitsuenetakoa izatera irits zitekeela; beraz, proiektu horri eustea eta gure bultzada ematen jarraitzea erabaki genuen.

- Horretan genbiltzala, kate horrek beste maila bat galdu zuenean 2013ko sanferminetan; hasierako uneetan onartu nahi izan ez bagenuen ere, azkenean errealitaterik gordinena onartu behar izan genuen: mendiko istripu batean joan zitzaigun Karolo. Horrelakoak zergatik gertatzen diren galdetzen diogu oraindik geure buruari; ezagutu genuen guztiok zorioneko sentitu behar genuke, haren ondoan pasatu genituen une eder guztiengatik. Pertsona bikain batek utzi gaitu, eta, gure ondoan ez izan arren, gure bihotzetan gordeko dugu hark guregan sortu zuen sinpatia, unerik zailenetan ere gai baitzen gu alaitzeko eta guri adorea emanez nahi genuen guztia lor genezakeela sinistarazteko.

- Hasierako uneetatik eta galera izugarria izan arren, argi izan genuen guztiok memorialarekin jarraitu behar genuela; are gogotsuago, gainera, horretara bultzatzen gintuen arrazoia ere bikoitza zelako. Honako dosier hau memorialaren 3. edizioaren berri ematera dator; aurrerantzean, "BANDRES-KAROLO MEMORIALA" izena hartuko du, gure lagunen oroimenez.

" 3. EDIZIOA: BANDRES-KAROLO MEMORIALA"

- Hala eta guztiz ere, gogoz gatoz, eta, azaldu dugunez, proba horiek berriro egiteko aukera izango da, gure lagunen omenez. Otsailaren 22a eta 23a aurreikusi dira, eta, berriro ere, gugandik gertueneko Pirinio ingurura joko dugu. Proposamenak askotarikoak dira: zenbat elur dagoen eta zer baldintza meteorologiko dauden ikusita, gure asmo nagusia bertan biltzen garen guztiok Belagoako haranaz edo Zurizakoaz gozatzea da. Otsailaren 22an, larunbatean, Mendiko Eskiko Lasterketa egingo da, eta, baldintzak aintzat hartuta, hauek dira A txapelketa edo ibilbideetarako proposamenak:

Linzatik irten – D´Escoueste lepora igo– Etxolara jaitsi - Petretxemara igo – Foya del Ingeniero-tik behera eginez Linzara jaitsi.



- Dena den, badakigu Bandresek eta Karolok lagun asko zituztela, eta edizio bakoitzean beren omenaldia egiten dietela, probetan parte hartuz; horregatik, mendiko eskiaz beste modu batera gozatzen duten horientzat, B ibilbidea proposatu dugu, lehiaketarako ibilbidea proposatzeaz gain:

Linzatik irten – Petretxemara igo – Foya del Ingeniero-tik behera eginez Linzara jaitsi.



- Otsailaren 23an, igandean, mendiko eskiko erlojupekoa izango da, eta honako bi aukera hauek proposatu dira, baldintzen arabera:

Irteera, Belagoako haraneko Arrakotik, 800 metroko malda eta 5 kilometroko ibilbidea eginez.



Parte-hartzaile bakoitzak mendiko eskularruak, Karpos markakoak, jasoko ditu opari:

ARAUDIA

MATERIALA ETA EKIPAMENDUA:

Parte-hartzaile bakoitzak, nahitaez, ondoko materiala eraman beharko du gainean irteera puntuan:

- Elur-jauzien biktimen erreskaterako ARVA aparatua, 457 KHz frekuentzia-estandarraren arabera (eski-estazio barruetan egiten diren erlojupeko igoeretarako izan ezik): gorputzari atxikita edota jantziak berariaz horretarako duen patrikan eramango da, ez ikusteko moduan eta piztuta, probak irauten duen bitartean.

- Elurretako pala sendo bat, aldaketarik gabekoa, eta zuloa egiteko balio duena. Gutxieneko neurriak: 20 x 20 cm. Egileari dagokio "elurretako pala" izena ematea, eta bere gain hartuko du definizio horren erantzukizuna (eski-estazio barruetan egiten diren erlojupeko igoeretarako izan ezik).
- 2,40 m-ko zunda bat, gutxienez 10 mm-ko diametroa duena.
- Dortsala: garbi ikusten den leku batean eramango da proban zehar, eta ezin izango da ez tolestu eta ez moztu *(antolatzaileek emandakoa).*
- Denbora neurtzeko sistema elektronikoa *(antolatzaileek emandakoa).*
- Mendiko eski parea: eskiek 60 mm-ko zabalera izango dute gutxienez oin azpian, eta elurrarekin kontaktuan dauden ertzak metalezkoak izango dira. Eskiek aurreko eta alboko segurtasunerako finkagailuak izango dituzte, eta gizonezkoenek 1,60 m-ko luzera izango dute gutxienez, eta emakumezko, junior eta kadeteen eskiek, berriz, 1,50 m-koa.
- Gizonezkoen eski parearen gutxieneko pisua, finkagailu eta guzti, 1.500 gramokoa izango da, eta 1.400 gramokoa emakumezko, junior eta kadeteen kasuan, kategoria guztietan, tolerantziarik gabe.
- Finkagailuek orpoa mugitzeko aukera emango dute gorakoan, eta, beherakoan, blokeatu egingo dute. Muturrekoak eta orpokoak aurretik eta albotik askatzeko segurtasun-sistema bat eduki behar dute.
- Bota parea: botek orkatilak babesteko adinako altuera izan behar dute, eta zorua *(koskak dituena) Vibram motakoa edo antzekoa* izango da *(zoruak, gutxienez, oinaren % 75 babestu behar du, eta koskek 4 mm-ko sakonera izan behar dute gutxienez).* Gutxieneko kopurua: 8 koska *(tako)* orpoan eta 15 koska *(tako)* aurrealdean *(kosken gutxieneko azalera 1 cm^2-koa da).* Botek kranpoietara egokitu behar dute. Gutxienez bi belarri edo itxigailu izango dituzte.
  - Karkasa eta bota motzaren gutxieneko pisua: gizonezkoenak, 1.000 gramo pareak, tolerantziarik gabe; emakumezko, junior eta kadeteenak, berriz, 900 gramo pareak, tolerantziarik gabe.
  - Bastoi parea.
  - Osoko eskularruak eta eguzkitako betaurrekoak.
  - Arropa: gorputzaren goiko aldean 3 geruza, eta 2 geruza behekoan. Horietako batek "haize-babesekoa eta irazgaitza" izan behar du.
  - Kasko bat, lasterketa osoan buruan jantzita eta lotuta eramango dena *(erlojupeko igoeretan izan ezik).* Kaskoak mendiko jarduera orokorretarako Europako EN 12492 (UIAA 106) arauen arabera homologatuta egon behar du.
  - Bizkar-zorroa. Epaimahaiak eskatzen duen material guztia sartzeko modukoa izango da, eta bi finkagailu izango ditu atzean edota alboan, eskiak zutik eramateko.
  - Lurraren eta eguraldiaren baldintzen arabera, antolatzaileek honako hauek ere eska ditzakete:
  - Laugarren geruza termiko bat, gorputzaren goiko alderako; lehiakidearen neurrikoa izan behar du.

- Eskiko burukoa edota belarri-babesak.

SEGURTASUNA ETA JOKAERA

- Arriskuan dagoen edota istripuren bat izan duen parte-hartzaileari laguntzeko betebeharra du talde edo lasterkari orok, eta, berehala, gertuen dagoen kontroleko arduradunei horren berri eman beharko die.
- Lehiakide bakoitzak berarekin eramango ditu zaborrak, latak, paperak eta horrelakoak, helmugara edo antolatzaileak zaborrak uzteko ezarritako tokira iritsi arte. Lehiaketa garaian bastoia puskatuz gero, kontrol-postuan utz daiteke, eta beste bat hartu, besterik izanez gero.
- Ibilbidean, parte-hartzaileek une oro kontrol-postuetako kideen jarraibideak beteko dituzte.
- Parte-hartzaileek garaikurrak emateko ekitaldietara joan behar dute, eskatzen zaizkien dopin-kontrolak egin behar dituzte, eta egunean bertan eta lasterketa egin den herrian egingo diren prentsaurrekoetara joan behar dute, gonbidapena jasoz gero.
- Lehiakideek kiroltasunez jokatu behar dute, eta gainerako kirolariekin, Lasterketa Batzordearekin, gainbegiraleekin, epaileekin, kontroletako kideekin eta antolatzaileekin errespetuz jokatuko dute.
- Parte-hartzaile orok **LEHIAKETA-ARAUDIA** ezagutu eta errespetatu behar du, eta, lehiaketa aurretik edota lehiaketa garaian, antolatzaileen eskumenetik kanpo dauden arrazoiengatik Lasterketa Batzordeak har ditzakeen neurriak onartuko ditu.
- Lasterkariak berak nahi duenean utz dezake proba, baina puntu hauek kontuan hartuko ditu:
  - Kontrol batean utziko du beti proba
  - Erlojupeko igoeraren denbora neurtzeko antolatzaileek emandako sistema elektronikoa entregatuko du.
  - Kontrolean egongo da, antolatzaileek irteteko bidea adierazi arte.

PARTE-HARTZEA:

Partaide guztiek mendiko federazioaren urte horretako lizentzia izan behar dute, eta erantzukizun zibileko asegurua kontratatuta dutela eta beharrezko estaldura duen istripu-asegurua badutela erakutsi behar dute.

Mendiko federazioen lizentzia edota EMFk onartutakoa duten euskal parte-hartzaileak soilik sartu ahal izango dira Euskadiko Txapelketarako sailkapenean, eta federazioen lizentzia duten parte-hartzaile guztiak 2014ko Mendiko Eskiko Euskadiko Kopako sailkapen nagusian sartu ahal izango dira.

KATEGORIAK:

Kirol-ekitaldi honetarako, honako kategoria hauek ezarriko dira:

- Kadeteak: erreferentzia-urtean 18 urte beteko ez dituztenak *(15, 16 edota 17 urte beteko dituztenak)*
- Juniorrak: erreferentzia-urtean 21 urte beteko ez dituztenak *(19 edo 20 urte beteko dituztenak)*
- Orokorra erreferentzia-urtean 21 urte edo gehiago beteko dituztenak

AZPIKATEGORIAK:

- Promesak: erreferentzia-urtean 24 urte beteko ez dituztenak *(21, 22 edota 23 urte beteko dituztenak)*
- Beteranoak: erreferentzia-urtean 40 urte edo gehiago beteko dituztenak

Mendiko eskiko lehiaketen denboraldia abendutik maiatzera bitartean garatzen da. Adinen araberako kategoriak zehazteko, urtarrilari eta ondorengo hilabeteei dagokiena hartzen da erreferentzia-urtetzat.

IZENA EMATEKO KUOTA:

Izena emateko kuota honako hau da: **50,00,-€,** bi probetan parte hartzeko eta Euskadiko Kopako sailkapenean sartzeko aukera izateko; ezin izango da bi probetako batean soilik parte hartu.

Izena emateko kuotaren barnean sartzen dira Karpos eskularruak eta luncha helmugan, larunbatean eta igandean. Materiala ere zozketatuko da *(arropa, eskiak konpontzeko txartelak, mendiko materiala, etab.)*

EGITARAUA:

Ostirala, otsailak 21:

- 17:00etatik 21:00etara, dortsalak jasotzea (Isaba Hotela).
- 20:00etan, bilera tekniko-informatiboa, eta probari buruzko xehetasunen proiekzioa.

Larunbata, otsailak 22:

- 08:30ean, probaren irteera.
- 10:15ean, lehenengo sailkatuen helmugaratzea.
- 12:00etan, helmugara iristeko epearen amaiera.
- 12:30ean, Banakako Euskadiko Txapelketako sariak emateko ekitaldia.
- Parte-hartzaile guztientzako luncha.

Igandea, otsailak 23:

- 08:30ean, probaren irteera.
- 09:15ean, lehenengo sailkatuen helmugaratzea.
- 10:30ean, helmugara iristeko epearen amaiera.
- 11:00etan, Erlojupeko igoerako Euskadiko Txapelketako sariak eta Antxon Bandres Trofeoa emateko ekitaldia.
- Parte-hartzaile guztientzako luncha.

IZEN-EMATEA:

http://www.deporbox.com/eventov2/memorialbandres-karolo/portada

INFORMAZIO GEHIAGO:

https://www.bandres-karolo.com

GAUA IGAROTZEKO LEKUAK ETA OSTATUAK:

Antolatzaileak ez dira gaua igarotzeko lekuez edota ostatuez arduratuko; dena den, Isaba Hotelarekin lankidetza-hitzarmen bat egin da, parte-hartzaileentzako eta familientzako eskaintza bereziak egiteko; informazio gehiago jasotzeko, jo honako loturetara:

http://www.isabaha.com - reservas@isabahs.com - Tel. 948 893 000

BABESLEAK:

hotel
apartamentos
isaba

sportful

ARALAR
KIROLAK

Lorpen
Innovative Technical Socks

MENDI
KIROLAK

ARTESPORT
TALLER
ESPECIALIZADO
SKI
SNOW
CAMPING